

6. MAILAKOEN AGUR BERTSOAK 2018/2019 ikasturtea (Doinua: Badira hiru aste)

HIRU URTEREKIN ETORRI GINEN
GU EZKABA ESKOLARA
ETA AURTEN JOAN BEHAR GARA
EZ EGITEKO HEMEN TRABA
TA BEDERATZI URTE PASATA
EZKABA ESKOLA GARA
ESKOLA HAU ATZEAN UTZITA
MAITE ZAITUGU EZKABA

BIZI OSOA PASA ONDOREN
EZKABA IZENA KOPETAN
ONGI PASA DUGU GEHIENETAN
BATEZ ERE TXANGOETAN
ORAIN HEMEN GAUDE ANTZOKIAN
EGONGO NAIZ AMETSETAN
ONGI PASA DUGU LAGUNEKIN
BEDERATZI URTE HAUETAN

GUK BETI NAHI IZAN DUGUNA
IKASTEIA IZAN DA HELBURU
PENA HANDIZ GOAZ EZKABATIK
GUK BETI MAITATU DUGU
HURRENGO URTEAN INSTITUTORA
EZ KOADERNO, BAI LIBURU
AGUR EZKABA ZU POLITENA
BETI OROITUKO ZAITUGU

TXIKI-TXIKITAN ETORRI GINEN
EMAN ZIGUTEN ESKUA
EUSKARAREN ALDE EGIN DUGUNA
ZUEK EZ GALDU KONTUA
BERAIEK EMAN ZIGUTEN ETA
IKASKETA PERFEKTUA
GU EZKABAKO HANDIAK GARA
GOZA EZAZUE POSTUA

IRAKASLEAK OSO JATORRAK
BAINA BEREIZTUKO GARA
BEDERATZI URTE HEMEN BARRUAN
ESKOLAKO BESARKADA
FESTA ASKO EGITEN DITUGU
AGUR ESAN BEHARKO DA
GURE BIGARREN ETXEA DA TA
POLITA GURE EZKABA